

**UDALEKO OSOKO BILKURAREN OHIKO  
BILERA**

**2016ko otsailaren 26a**


Lesakako Herriko Etxeko Bilera Aretoan, bi mila eta hamaseigarren urteko otsailaren hogeita seian, ortziralea, ilunabarreko zazpitan, udaleko Osoko Bilkura bildu da, ohiko bileran eta lehenengo deialdian, Jose Luis Echegaray Andueza alkate jaunaren lehendakaritzapean eta honako zinegotzi hauek etorri direla: Iban de Prado Etxepeteleku, Pedro Apezteguia Alzugaray, Maria Victoria Gortari Aldave, Esteban Irazoqui Irazoqui, Jose Maria Portu Ochoteco, Mainer Arrieta Tapia, Oier Iantzi Ordoki, Lorea Flores Compains, Severiano Txoperena Matxikote eta Mattin Etxabide Gartzia jaun-andreak.

Idazkari lanetan, Andoni Esparza Leibar jauna ari da, udaleko idazkaria.

2015eko ekainaren 19ko osoko bilkuran erabakitakoarekin bat, bilkura guziaren soinugrabaketa egingen da, geroago Udalaren web orrian zintzilikatzeke xedearekin.

Alkate jaunaren aginduz, bilkura hasi da eta, deialdiari jarraituz, honako gai hauei buruz aritu dira:

**1 - AZKEN BILKURARI DAGOKION  
AKTAREN ONESPENA**



**SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DEL  
AYUNTAMIENTO**

**26 de febrero de 2016**


En el Salón de Sesiones del Ayuntamiento de la Villa de Lesaka, siendo las diecinueve horas del viernes 26 de febrero del año dos mil dieciséis, se reúne, en sesión ordinaria y a primera convocatoria, el Pleno municipal, presidido por el señor alcalde don José Luis Echegaray Andueza y con la asistencia de los siguientes concejales: don Iban de Prado Etxepeteleku, don Pedro Apezteguía Alzugaray, doña María Victoria Gortari Aldave, don Esteban Irazoqui Irazoqui, don José María Portu Ochoteco, doña Mainer Arrieta Tapia, don Oier Iantzi Ordoki, doña Lorea Flores Compains, don Severiano Txoperena Matxikote y don Mattin Etxabide Gartzia.

Actúa como secretario, el de la Corporación, don Andoni Esparza Leibar.

En cumplimiento de lo acordado por el Pleno del Ayuntamiento con fecha 19 de junio de 2015, se realizará una grabación de sonido de la totalidad de la sesión, con el fin de colgarla posteriormente en la página web del Ayuntamiento.

Por disposición del señor alcalde se da comienzo a la sesión en la que, conforme a la convocatoria, son tratados los siguientes asuntos:

**1 - APROBACIÓN DEL ACTA  
CORRESPONDIENTE A LA ÚLTIMA  
SESIÓN**



Osoko Bilkurak, aho batez onartu du azken bilkurako akta, 2016ko ilbeltzaren 29koa.

El Pleno aprueba por unanimidad el acta de la última sesión, celebrada el día 29 de enero de 2016.

**2 - HIRIGINTZAKO UDAL PLANAREN ALDAKETA PUNTUAL ETA EGITURAZKOA, XABIER MARICHALAR NARVARTEK SUSTATUA. BEHIN-BEHINEKO ONESPENA**

Udaleko osoko bilkurak, 2015eko irailaren 18an eginiko bileran, hasiera batean onetsi zuen hirigintzako Udal Planaren aldaketa puntual eta egiturazkoa, Xabier Marichalar Narvarte jaunak sustatua eta Eltzeta kaleko finka bati dagokiona (katastroko 3. poligonoko 183. eta 475. lurzatiak). Plana aldatzearen xedea da posible egitea bi familiako etxebizitza eraikitzea.

Espedientearen erakusketa publikoa honako hauetan argitaraturiko iragarkien bitartez egin zen: 202. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, 2015eko urriaren 9koan, eta *Diario de Navarra* eta *Diario de Noticias* egunkarietan (bietan urriaren 6an), eta ezarritako epean ez zen inolako alegaziorik aurkeztu.

Bertzalde, Nafarroako Gobernuo Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzako Zerbitzuak bere nahitazeko txostena eman zuen 2015eko abenduaren 14an (3.620. sarrera, Udaleko Erregistro Orokorrean, 2015/12/29koa). Adierazten du sustatzaileak osatu beharko duela ekarritako dokumentazioa.

Otsailaren 12an (358. sarrera Erregistroan),


**2 - APROBACIÓN PROVISIONAL DE LA MODIFICACIÓN PUNTUAL ESTRUCTURANTE DEL PLAN MUNICIPAL DE URBANISMO, PROMOVIDA POR XABIER MARICHALAR NARVARTE**

El Pleno del Ayuntamiento, en sesión celebrada el día 18 de septiembre de 2015, aprobó inicialmente la modificación puntual estructurante del Plan Municipal de urbanismo, promovida por don Xabier Marichalar Narvarte y referida a una finca situada en la calle Eltzeta (parcelas 183 y 475 del polígono 3 del catastro). El objeto de la modificación del Plan es hacer posible la construcción de una vivienda bifamiliar.

La exposición al público del expediente fue realizada mediante edictos publicados en el Boletín Oficial de Navarra nº 202, de 9 de octubre de 2015 y en *Diario de Navarra* y *Diario de Noticias* (en ambos casos el día 6 de octubre) sin que durante el periodo establecido se planteara alegación alguna.

Por otra parte, el Servicio de Ordenación del Territorio y Urbanismo del Gobierno de Navarra emitió su informe preceptivo con fecha 14 de diciembre de 2015 (entrada nº 3602, de 29/12/2015 en el Registro General del Ayuntamiento). Indica que resulta preciso que el promotor complete la documentación aportada.

El día 12 de febrero (entrada nº 358 en el

The bottom of the page contains several handwritten signatures in black ink. There are also some faint, illegible stamps or markings, including what appears to be a date '2016' and some numbers like '12' and '19'. The signatures are written over the printed text of the document.

jaso da sustatzaileak ekarri duen dokumentazio osagarria, aipatu txostenari erantzuna emateko. Jabier Lekuona Errandonea jaunak idatzia da eta Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak oniritzia emana 2016/01/29an.

Hori dena ikusita, Osoko bilkurak, zinegotzien aho bateko botoarekin, horrela udalbatzaren legezko kide kopuruaren gehiengo absolutua lortuta, honako hau erabaki du:

1 - Behin-behinekoz onestea hirigintzako Udal planaren aldaketa puntual eta egiturazkoa, Xabier Marichalar Narvarte jaunak sustatu duena eta Eltzeta kalean dagoen lur-eremu bati eragiten diona (katastroko 3. poligonoko 183. eta 475. lurzatiak).

2 - Bidaltzea Nafarroako Gobernuko Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzako Zerbitzuari espedientean aipatu diren agirietako bakoitzetik ale bat, emaniko txostenekin batera, behin betiko onespena eman diezaioten.

3 - Erabaki honen berri ematea sustatzaileari.

### **3 - HIRIGINTZA-HITZARMENA, XABIER MARICHALAR NARVARTEK SUSTATUA. BEHIN BETIKO ONESPENA**

2016ko ilbeltzaren 7ko 3/2016 zenbakiko Alkatetzaren Ebazpenaren bitartez, jendaurrean ikusgai egon zen hirigintzako hitzarmenaren proiektua. Aipatu dokumentuan ezartzen da Udalari dagokion %10eko lagapena 9.000 eurotan

Registro) se ha recibido la documentación complementaria entregada por el promotor en respuesta a dicho informe. Está redactada por don Jabier Lekuona Errandonea y visada con fecha 29/01/2016 por el Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro.

A la vista de todo ello, el Pleno, con el voto unánime de los concejales, lo que supone la mayoría absoluta del número legal de miembros de la corporación, acuerda:


1º) Aprobar provisionalmente la modificación puntual estructurante del Plan Municipal de urbanismo, promovida por don Xabier Marichalar Narvarte y referida a una finca situada en la calle Eltzeta (parcelas 183 y 475 del polígono 3 del catastro).

2º) El envío al Servicio de Ordenación del Territorio y Urbanismo del Gobierno de Navarra de un ejemplar de cada uno de los documentos citados en el expediente que integran la modificación del Plan, junto con los informes emitidos, a fin de que procedan a su aprobación definitiva.

3º) Que sea notificado el presente acuerdo al promotor.

### **3 - APROBACIÓN DEFINITIVA DEL CONVENIO URBANÍSTICO PROMOVIDO POR XABIER MARICHALAR NARVARTE**

Mediante Resolución de la Alcaldía nº 3/2016, de 7 de enero de 2016, fue sometido a exposición al público el proyecto de convenio urbanístico. En el citado documento se establece que la cesión del 10% correspondiente al



baloratuko dela.

Espedientean ageri da abenduaren 30ean Nasuvinsak eman duen txostena, enpresa horrek aholkua ematen baitio Udalari hirigintza arloan.

Dagozkion ediktuak argitaratu ziren, ilbeltzaren 19an, *Diario de Noticias* eta *Diario de Navarra* egunkarietan, eta baita 15. Nafarroako Aldizkari Ofizialean ere, 2016ko ilbeltzaren 25ekoan, eta ezarritako hogeitaz eguneko epean ez zen inolako alegaziorik aurkeztu.

Bertzalde, Nasuvinsarekin txostenak zera dio "kontuan hartuta higiezinaren merkatuaren gaur egungo lurrunkortasuna, komeni izanen litzateke hitzarmenak begiestea aprobetxamenduaren %10aren balorazioa berrikusteko aukera...". Udaleko Hirigintzako Batzordeari, otsailaren 3an eginiko bileran, iruditu zitzaion ez zela beharrezkoa berrikuste hori egitea, kontuan hartuta jarduketa urbanistiko ttikia dela, tratatzen den kantitatea eta ezaugarri horietako klausula batek planteatu lituzkeen zailtasunak.

Hori dena aintzat hartuta, Osoko bilkurak honako hau erabaki du aho batez:

1 – Behin betiko onestea Xabier Marichalar Narvarte jaunak sustatu duen hirigintza-hitzarmena, Eltzeta kaleko finka bati dagokiona (katastroko 3. poligonoko 183. eta 475. lurzatiak).

2 – Erabaki honen berri ematea sustatzaileari, hitzarmena sina dezan, behin hirigintzako Udal Planaren aldaketa puntual eta egiturazkoaren aldaketa behin betiko onartzen denean.

3 – Behin betiko onespenez hau Nafarroako

Ayuntamiento será valorada en 9.000 euros.

Consta en el expediente el informe emitido con fecha 30 de diciembre por Nasuvinsa, empresa asesora del Ayuntamiento en materia urbanística.

Publicados los correspondientes edictos el día 19 de enero en el Diario de Noticias y en el Diario de Navarra, así como en el Boletín Oficial de Navarra nº 15, de 25 de enero de 2016, durante el periodo establecido de veinte días no se produjo alegación alguna.


Por otra parte, el informe de Nasuvinsa señala que "dada la volatilidad actual del mercado inmobiliario, convendría que el convenio contemple la posibilidad de que se revise la valoración del 10% del aprovechamiento...". La Comisión de Urbanismo del Ayuntamiento, en reunión celebrada el día 3 de febrero, estimó que no resultaba preciso realizar esa revisión, teniendo en cuenta que se trata de una actuación urbanística pequeña, la cantidad de la que se trata y las dificultades que plantearía una cláusula de esas características.

A la vista de todo ello, el Pleno acuerda por unanimidad:

1º) Aprobar definitivamente el Convenio urbanístico promovido por don Xabier Marichalar Narvarte para una finca situada en la calle Eltzeta (parcelas 183 y 475 del polígono 3 del catastro).

2º) Que se notifique lo acordado al promotor, a fin de que proceda a suscribir el Convenio una vez que se haya aprobado definitivamente la modificación puntual estructurante del Plan Municipal de urbanismo.

3º) La publicación de la presente



Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

4 – Sinatu ondotik, aipatu agiria idaz dadila hirigintza-hitzarmenen Udal Erregistroan.

**4 - KISTIÑE BERRA LERTXUNDIREN  
ESKAERA, LURZATI BAT KATASTROAN  
SARTZEKO**

Akordio proposamenaren zioen azalpenak honako hau dio:

“2015-12-21ean, Kistiñe Berra Lertxundi andreak idazki bat aurkeztu du Udalean (3.525. sarrera Erregistro Orokorrean), eta hartan adierazten du 2003ko azaroaren 12an eskatu zutela katastroan sartzeko, bere eta Juan Zabaleta Larbururen izenean, 10.750 m<sup>2</sup>-ko lur-eremu bat, Tximista edo Eskolamendi alderdian dagoena, eta katastroan Lesakako herri-lur gisa agertzen zena. Eskaera hartan, adierazi zuten aipatzen ari garen lur-eremua Eugenio Almandoz Mayari erosi ziotela.

Halaber, orain aurkeztu duen idazkian adierazten du, uste duela une hartan Nafarroako Gobernuko Herrilurren Atala eginiko eskaeraren alde agertu zela, baina ez zela aldaketa gauzatu.

Mendiko Batzordeak sakonki aztertu du, bai ekarritako dokumentazioa, bai katastroak eta baita Udalean dagoen dokumentazioa ere, eta horietatik honako ondorioetara ailegatu da:

- Ez da lur-eremu horren salerosketako

aprobación definitiva en el Boletín Oficial de Navarra.

4º) Que, tras su firma, el mencionado documento sea anotado en el Registro Municipal de convenios urbanísticos.

**4 – PETICIÓN DE KISTIÑE BERRA  
LERTXUNDI PARA INCLUSIÓN DE  
PARCELA EN EL CATASTRO**


La exposición de motivos de la propuesta de acuerdo señala:

“Con fecha 21-12-2015, doña Kistiñe Berra Lertxundi ha presentado un escrito en el Ayuntamiento (entrada núm. 3.525 en el Registro General), y en el mismo manifiesta que, el 12 de noviembre de 2003, solicitaron que se incluyera en el catastro, a su nombre y al de Juan Zabaleta Larburu, un terreno de 10.750 m<sup>2</sup>, ubicado en el paraje de Tximista o Eskolamendi, y que figuraba en el catastro como comunal de Lesaka. En dicha petición, ya se indicó que el terreno en cuestión lo habían adquirido a Eugenio Almandoz Maya.

Asimismo, manifiesta en el escrito ahora presentado, que cree que en aquel momento la Sección de Comunales del Gobierno de Navarra se mostró favorable a la petición realizada, pero que la modificación no se llevó a cabo.

La Comisión de Montes ha examinado en profundidad tanto la documentación aportada, como los catastros y la documentación obrante en el Ayuntamiento, y de ellos ha llegado a las siguientes conclusiones:

No existe escritura de compra-venta del

The bottom of the page features several handwritten signatures in black ink. On the right side, there is a red circular stamp with some illegible text inside. The signatures are spread across the width of the page, some overlapping the text.

eskriturarik.

- Aipaturiko lur-eremu horren salerosketako agiria, dokumentu pribatu bat da, Eugenio Almandoz Mayaren aitortpen bat, 1985-01-30eko data duena, eta non ageri den sinadurak ematen du ez datorrela bat Udaleko hainbat dokumentutan agertzen denarekin, izan ere aipatu den pertsona hori udal langilea izan zen hainbat urtetan.

- Edozein kasutan, Eugenio Almandozek ez zeukanez saldu zuen lur-eremuaren jabetza frogatuko duen eskriturarik edo bertze nolabaiteko dokumentaziorik, salmenta egin izanzen zen berea ez zen lur-eremu batekin, Lesakako komunalekoa zena.

- 1926 eta 1956-1957 urteetako katastroak aztertuta, ondorioztatzen da orain erreklamatzeko duen lur-eremuaren kokapena ez datorrela bat katastro haietan Juan Miguel Albisturren (1926) eta Eugenio Almandozen (1956-1957) izenean agertzen zenarekin.

- Mendiko Batzordeari iruditzen zaio katastroan bere izenean jartzeko eskatzen duen lur-zatia izan daitekeela dagoeneko katastroan, 1. poligonoko 53. lurzati gisa identifikatua, eta eskatzailearen eta bere semearen izenean dagoena.

- Halaber, orain erreklamatzeko duen lur-zatia herri-lurzati baten zati bat da, eta haren ustiapena Lesakako bizilagun bati esleitu zitzaion 1996-03-29ko osoko bilkuran, eta orduan ez zuen inork inolako alegaziorik aurkeztu aipatu esleipenari buruzkoa. Gainera, aipatu den bizilagun horrek aprobetxatu du lur-eremu hori erran den datatik

referido terreno.

- El documento de compra-venta del terreno en cuestión, es un documento privado, una declaración de Eugenio Almandoz Maya, fechada el 30-01-1985, en la que la firma parece que no concuerda con la que figura en diversos documentos del Ayuntamiento, puesto que la referida persona fue empleado municipal durante varios años.

- En todo caso, al no disponer Eugenio Almandoz de escrituras o de otra documentación que acredite la propiedad del terreno vendido, la venta se habría realizado con un terreno que no era de su propiedad, sino del comunal de Lesaka.

- Del análisis de los catastros de los años 1926 y 1956-1957, se desprende que la ubicación del terreno que ahora reclama no se corresponde con la que en dichos catastros figuraba a nombre de Juan Miguel Albistur (1926) y Eugenio Almandoz (1956-1957).

- La Comisión de Montes entiende que la parcela que reclama que se incluya en catastro a su nombre, puede ser la que ya figura en catastro identificada como polígono 1 parcela 53, y que está a nombre de la peticionaria y de su hijo.

- Asimismo, la parcela que reclama actualmente es parte de una parcela comunal cuyo aprovechamiento fue adjudicado a un vecino de Lesaka en sesión de fecha 29-3-1996, y nadie presentó entonces alegación alguna sobre dicha adjudicación. Además, el referido vecino la ha venido aprovechando desde dicha fecha hasta la

gaur arte, eta inork inoiz ez dio deus erreklamatu.

Azkenik, bilera bat egin da interesatuarekin, 2016-02-11n, eta han adierazi zaio zein den Udalaren jarrera”.

Azaldu dena oinarritzat hartuta, proposatzen da uko egitea Berra Lertxundi andreak eginiko eskaerari.

Horri buruz, Severiano Txoperena zinegotzi jaunak adierazi du EH Bilduko udal taldeari iruditzen zaiola gai korapilatsua dela, eta horregatik proposatu dute mahai gainean uztea, arreta gehiagorekin aztertzeko. Alkate jaunak erantzun du erranez afera hau zaharra dela eta beharrezkoa dela berehala erabaki bat hartzea. Ondoren, eztabaida izan da eta bertan parte hartu dute alkate jaunak eta Txoperena eta Etxabide zinegotziak.

Hura amaituta, eta Geroa Baiko sei zinegotzien aldeko botoekin eta EH Bilduko bortzen abstentzioarekin, osoko bilkurak honako hau erabaki du:

1 – Uko egitea Kistiñe Berra Lertxundik eginiko eskaerari, katastroan lur-eremu bat bere izenean jartzeko.

2 – Erabaki honen berri ematea interesatuari.

**5 – GENARO PICABEA LARRALDEK  
ESKATURIKO  
APROBETXAMENDUA**

2015eko abenduaren 30ean aurkezturiko eskaera aztertuta (287. sarrera Udaleko Erregistro

actualidad, sin que nadie nunca le haya reclamado nada.

Finalmente, se ha mantenido una reunión con la interesada, el día 11-02-2016, en la que se le ha informado de la postura del Ayuntamiento”.

En base a lo expuesto se propone denegar la solicitud formulada por la señora Berra Lertxundi.

Al respecto el concejal don Severiano Txoperena manifiesta que el grupo municipal de EH Bildu considera que se trata de un tema complejo, por lo que proponen dejarlo encima de la mesa para estudiarlo con más detenimiento. El señor alcalde responde que es un asunto antiguo y que resulta preciso adoptar ya una decisión. Seguidamente se genera un debate con la participación del señor alcalde y de los concejales Txoperena y Etxabide.


Finalizado el mismo y con los votos a favor de los seis concejales de Geroa Bai y la abstención de los cinco de EH Bildu, el Pleno acuerda:

1º) Denegar la solicitud realizada por Kistiñe Berra Lertxundi, de que se incluya a su nombre un terreno en el catastro.

2º) Notificar el presente acuerdo a la interesada.

**5 – APROVECHAMIENTO  
FORESTAL SOLICITADO POR GENARO  
PICABEA LARRALDE**

Examinada la instancia presentada con fecha 5 de febrero de 2015 (entrada nº 287 en el



Orokorrean), osoko bilkurak aho batez honako hau erabaki du:

1 – Nafarroako Gobernuko Oihanaren Kudeaketa Atalaren aitzinean tramitatzea Genaro Picabea Larralde jaunak eginiko eskaera, pinu intsinisen matarrasa egiteko, 25.484 m<sup>2</sup>-ko lur-eremu batean daudenak, Elortegi parajea (Izotzaldea auzoan). Katastroko 6. poligonoko 2 lurzatiaren J azpipartzelaren zati bati dagokio (aprobetxamenduaren erreferentzia: Oihapart/2015/31).

2 – Lanak hasi baino lehen horren berri eman beharko dio Udalari, eta baita aprobetxamendua amaitu baino lehen ere, hark egiaztatu ahal izateko nola gelditu diren erabili diren bideak.

Horretarako, ezarritako fidantza jarri beharko du, eta horren zenbatekoa jakinaraziko zaio.

Bideak ezin izanen dira egoera txarrean utzi. Hori gertatuz gero, hamabortz eguneko epea emanen zaio haiek konpontzeko. Bertzela, Udalak berak moldatuko ditu, aprobetxamendua egin duten jabeen kontura.

Orokorrean, eguraldi euritsuarekin ezin izanen da egurrik garraiatu, baldin eta horretarako baimen espresa ematen ez bazaio.

3 – Sustatzaileari jakinaraztea finka hori komunal agertzen dela udal katastroan, eta, horregatik, erabaki honek ez duela deus adierazten aipatu lur-eremu horren jabetzari buruz.

Registro General del Ayuntamiento), el Pleno acuerda por unanimidad:

1º) Tramitar ante la Sección de Gestión Forestal del Gobierno de Navarra la solicitud formulada por don Genaro Picabea Larralde para realizar una matarrasa de pino insignis en una finca de 25.484 m<sup>2</sup> ubicada en el paraje de Elortegi (barrio de Izotzaldea). Corresponde a parte de la subparcela J de la parcela 2 del polígono 6 del catastro (Referencia del aprovechamiento: Oihapart/2016/2)

2º) Con carácter previo al comienzo de las labores de saca, deberá comunicárselo al Ayuntamiento y también antes de finalizar las mismas, a fin de que éste pueda comprobar el estado de los caminos utilizados.

Para ello tendrá que constituir la fianza establecida, cuyo importe le será comunicado.


Los caminos no podrán dejarse en malas condiciones. Si esto sucediera, se le dará un plazo de quince días para arreglarlos. En caso contrario, los reparará el Ayuntamiento, a cargo de los propietarios del aprovechamiento.

En general, no podrá transportarse madera con tiempo lluvioso, salvo que se le conceda una autorización expresa para ello.

3º) Comunicarle que la finca figura como comunal en el catastro municipal, por lo que este acuerdo no supone pronunciamiento alguno sobre la propiedad de la misma.

6 - ALKATETZAREN EBAZPENEN

6 CONOCIMIENTO DE LAS

A series of handwritten signatures in black ink, corresponding to the council members mentioned in the text. The signatures are written over the printed text of the council's decision.



## BERRI EMATEA

Zinegotzi guziei pasatu zaie, posta elektronikoz, azken osoko bilkuratik gaur arte Alkatetzak emaniko ebazpenen zerrenda. Ez dutenei, aipatu zerrenda horren paperean inprimaturiko kopia bana utzi zaie, bakoitzari dagokion erretiluan.

Ondoren, eta Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamenduaren 91.4 artikulua xedatutakoaren arabera, alkate jaunak galdetu du ea talde politikoren batek premiazko arrazoiak direla-eta Udalbatzak eztabaidatzea nahi duen aferarik ote duen, deialdiarekin batera zihoan gai-zerrendan ez zegoena eta "eskari-galderak" puntuan sartzerik ez duena.

Ez da inolako gairik planteatu.

## 7 – OSOKO BILKURAKO KONTROL-JARDUERA. ESKARI-GALDERAK

Severiano Txoperena jaunak galdetu du ea Lesakan jarri behar den **bosgarren kontenedorea**, hondarrak biltzeko. Alkate jaunak erantzun du erranez horri buruzko erabakiak ez dituela Udalak hartzen, baizik eta Bortzirietako hiri hondakin solidoak kudeatzeko Mankomunitateak.

Ondoren, eztabaida izan da eta bertan parte hartu dute alkate jaunak eta Txoperena eta Etxabide zinegotziek.

Aipaturiko eguneko ilunabarreko zazpi eta hogeita zazpi minutu direnean, eta

## RESOLUCIONES DE LA ALCALDÍA

Se ha pasado a todos los concejales, mediante correo electrónico, la relación de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía desde la última sesión hasta el día de hoy. A los que no lo tienen, se les deja una copia impresa en papel de la citada lista, en su respectiva bandeja.

Seguidamente y conforme a lo establecido por el artículo 91.4 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales, el señor alcalde pregunta si algún grupo político desea someter a la consideración del Pleno, por razones de urgencia, algún asunto no comprendido en el orden del día que acompañaba a la convocatoria y que no tenga cabida en el punto de ruegos y preguntas.


No se plantea cuestión alguna.

## 7 – ACTIVIDAD DE CONTROL DEL PLENO. RUEGOS Y PREGUNTAS

Don Severiano Txoperena pregunta si va a colocarse en Lesaka el **quinto contenedor** para la recogida de residuos. El señor alcalde responde que las decisiones al respecto no las adopta el Ayuntamiento sino la Mancomunidad de Bortzirriak para la gestión de residuos sólidos urbanos.

A continuación se produce un debate con la participación del señor alcalde y de los concejales Txoperena y Etxabide.

Siendo las diecinueve horas y veintisiete minutos del día de la fecha y no habiendo más



eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, alkate asuntos que tratar, el señor alcalde da por finalizada  
jaunak akabatutzat eman du bilera. Nik, idazkariak, la sesión. De todo ello yo, como secretario,  
egiaztatu egiten dut. certifico.

